

## Lankidetza hitzarmena

# **EROSKI BIDAIK AGENTZIAK IBILGAILUEN RENTING NEGOZIO LERRO BERRIA ATERA DU ALD AUTOMOTIVEREKIN BATERA**

- Zerbitzu berria era multikanalean eskaintzen da, aplikazioaren, webaren eta bulego sareko aurrez aurreko salmenta lagunduaren bidez
- Travel Air dibisioak, orobat eskaintzen du autoen *renting-a* enpresentzat, ibilgailuen gama eksklusibo batekin
- EROSKI Club-eko bazkideek eskaintza bereziak dituzte

Elorrio, 2019ko ekainaren 5a.- [EROSKI Bidaiak](#) agentziak bere eskaintza ugaritu du, eta ibilgailuen *renting* negozio lerro berria atera du, [ALD Automotive](#)-rekin. Bi konpainiek lankidetza hitzarmen bat sinatu dute, zeinetan jasota baitaude EROSKI Club-eko bazkideentzako baldintza bereziak.

Mugikortasun zerbitzu berria era multikanalean eskaintzen da. Eskaintza digitala honako bide hauetatik kudeatzen da. [www.eroskimovilidad.com](http://www.eroskimovilidad.com) webgunea, EROSKIren aplikazioaren "Nire sustapenak" atala eta aurrez aurreko salmenta lagundua, EROSKI Bidaiak agentziaren bulego sarean.

[Travel Air](#) enpresa bidaien dibisioak, halaber, mugikortasun zerbitzu berri hau eskaintzen die ibilgailuen gama eksklusibo batekin.

Zerbitzu berri hori kontratatzen duten EROSKI Clubeko Bazkide Bezeroek 100 euroko aurrezpena jasoko dute EROSKI Club txartelean.

*"ALD Automotiverekin izenpetutako aliantzari esker, zerbitzu berri bat eskain dezakegu kontsumitzaileek gaur egun dituzten mugikortasun behar guztiak estaltzeko. Eta era omnikanalean egiten dugu, EROSKI taldeko 6 milioi pasa Bazkide Bezeroek erraztasun guztiak izan ditzaten gure eskaintza efiziente eta lehiakor hau eskuratzeko",* azaldu du EROSKI Bidaiak agentziako zuzendari komertzialak, Sergio Gomez Orunak.

Bestalde, Retaileko eta ALD Automotiveren B2C-ko zuzendari komertzialak, Jose Luis Hernandezek honela esan du: *"Hitzarmen hori giltzarrizkoa da, batez ere iparraldeko eta Balearretako rentinga hedatzeko, non EROSKI liderra baita.*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*Banaketa sare zabalaren bitartez, aukera asko irekitzen dira kontsumitzaille mota orori eskura jartzeko ibilgailuen alokairua; bereziki, EROSKIren Bazkide Bezeroei eta enpresei”.*

## **50. urteurrenaren sustapena**

Eskaintza plazaratzeko orduan, EROSKIren 50. urteurrena dela eta, beste eskaintza berezi bat prestatu dugu EROSKI Clubeko bazkideentzat, Toyota CHR 1.8 125H Advanced auto bat hilean 340 euro ordainduta 36 hilabetez eta 15.000 kilometroekin.

## **EROSKI Bidaiei buruz**

Sektoreko agenzia liderretako bat da, oporretako bidaietan espezialista, eta 174 zentrotik gora dituena Espainia osoan. Horretaz gain, on line bulegoak ditu: [www.viajeseroski.es](http://www.viajeseroski.es) eta [www.viatgescaprabo.es](http://www.viatgescaprabo.es). Bestalde, dibisio berezi bat du enpresa bidaiak eta biltzarrak antolatzeko, [Travel Air](http://Travel Air) izeneko, zeina, besteren artean, tarifarik onenak negoziatzeaz arduratzen baita Aire konpainietan, Alokairuko Autoetan eta Hoteletan.

EROSKI Bidaiak lehen bidaia agenzia da Turismo Bitartekaritzarako Zerbitzuen UNE-EN-ISO 9001-2008, UNE 189001 kalitate ziurtagiriak dituena (ICTEren Q kalitate turistikoa) eta zilarrezko Q ziurtagiria 2015ean, enpresa kudeaketaren bikaintasun aitortpen gisa. Familiako Turismoaren zigilua du, gainera, Familia Ugarien Espainiako Federazioak emanik.

## **ALD Automotiveri buruz**

[ALD Automotive](http://ALD Automotive) lider globala da mugikortasun irtenbideak ematen, eta renting eta flota kudeaketa-zerbitzu osoak eskaintzen dizkio 43 herrialdetan enpresa handi, ertain eta txikiekin eta profesional eta partikularrekin osatutako bezero multzo bati. Industriako liderra den aldetik, bere estrategiaren erdigunean jartzen mugikortasunaren iraunkortasuna, eta mugikortasun irtenbide berritzaileak eskaintzen dizkie bezeroei, orobat teknologiaraz egokitutako zerbitzuak, haien negozioan zentratzen lagunduz. ALDk 6.500 langile ditu mundu osoan, eta 1,68 milioi ibilgailu kudeatzen dihardu (2019ko martxoan). ALDk Parisko Euronexten kotizatzen du (compartment A; ISIN: FR0013258662; Ticker: ALD), eta SBF120 indizean dago. Societe Generale da ALDren akziodun jabea.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)